

NAFAR IZKUNTZA

Abereen izenak eta otsak

LATXAGA.


Oar bat, aspaldikoa abereen eta txorien izenak zer bait erran nai dute:

Nolako otsa alako erroa. Len-dabizi erran eta gero erroaren sustraiak jaiotzen dira eta izen ori betiko nortasunaren ezau-garria bezala gordetzen du. Orre-kin artzaien izkuntza sortzen da alkarriketako aitorle gelditzen da.

Izkuntzaren lenengo urratsal doñu berexiak sortzen dute.

Abereen otsak
Beiak: Muuu -marru- muuka
Zaldiak: Irrintzika
Astoak: Arrantzaka
Otoak: Uluka
Txerriak: Kurrinka
Ardiak: Beeka
Leoiak: Orruka
Oilarrak: Kukurruka
Oiloak: Kakaraka
Oilo-loka: Kloka
Txitoak: Piopioka
Ontzak: Ziztuka
Zakurrak: Zaunkaka
Katuak: Miauka
Kukuak: Kukuka

Abestia
I. Joan nintzen sutondora
ta ikusi nuen katua
katutxoak miau, miau, miau
bira beste aldera.
II.
Joan nintzen atarira
ta ikusi nuen txakurra
txakurrak guau, guau, guau
bira beste aldera.
Txakurtxoak guau, guau,
guau.
Katutxoak miau, miau, miau
bira beste aldera



III.
Joan nintzen ikuilura
ta ikusi nuen bei zuria
bei zuriak muu, muu, muu
bira beste aldera.

IV.
Joan nintzen larrera
ta ikusi nuen ardia
arditxoak bee, bee, bee
bira beste aldera.
V.
Joan nintzen eiera
ta ikusi nuen txerria
txerritxoak kurri, kurri, kurri
bira beste aldera.

VI.
Joan nintzen sasira
ta ikusi nuen sugea
suge zarrak fii, fii, fii
bira beste aldera.

BERRI ONA ARTZALLUZ'TAR JOXEMARI

Ozen eta ausart erran

Morroiei talentuak utzi zizkien» (Mt.25,14-30)

MUNDU kapitalista onetan irabaztea eta aberastea da kuestioa. Irabazi eta aberastu bertzeen kontura gainera. Zuk balio duzu etikiñaren arabera. Zenbat eta geiago egin orduan eta diru geiago ordainduko dizute.

Geure talentuei etekiña atera bear diegu; egia. Etekiña, bai, baiña guztien onerako eta ez nere probetxurako bertzeak aaztuz.

Ekintzara gonbidatzen gaitu Jaunak: indarkeria gainditzan ari den tokian pakea jartzera, asarrea geitzen ari den tokian baretasuna sortzera, tolerantzia falta den tokian errespetoa jartzera, zapalkeria ematen den tokian duintasuna sortzera, gorrotoa dagoen tokian maitasuna jartzera... ori da gure ekintza, gure erronka eta gure betekizuna.

Dudarik gabe, egunen batean Jainkoaren aurrean aurkeztzen geranean nola maite izan dugun galderari erantzun bearko diogu. Maitasuna baita gauzarik garrantzitsuena gizakiaren bizitzan; maitatzen ez dakienak eta maitatzen ez duenak Jainkoari uko egiten dio. Eta Jainkoa ukatzea ikaragarria da!

Diruak ez dakar bizitza obeagoa; aberastasunak ez dakar bizitzaren duintasuna; kapitalismoak ez dakar zuzenago bizitzea, ondasunak ez dakar zoriontasuna.

Bizitza serio artzen badugu, bizitza zuzentasunez bizi nai badugu, bizitza duintasunez moldatu nai badugu... elkartearen zer-bitzari izaten asmatu bearko dugu. Guztioi izan gera ontasun eta kualidade bikaiñekin jantziak. Eman zaigun karisma bertzen onerako da: familian, lanean, gizarte-ekintzetan, elkartetako konpromisoetan... guzti oietan adi eta erne bizi bearko dugu urkoa aintzat artuz.

Begira, guk egin dezakegun gauzarik txikiak balio aundia du. Maitasunez eta urkoaren mesedetan egiten baduzu... ez zaizu geiago eskatuko; izan ere apaltasunak ikaragarri dezake.

Kapitalismoa nagusitu zaigun mundu kaskar onetan arriskatzek merezi duela uste dut. Segurtasuna eta ziurtasuna maite dituenarekin ez konta ezertako. Apaltasunean eta xume agertzen den gizakiaekin arriskatu bizitzan eta asmatuko duzu.

Ebanjelioa, zabaltzeko eman zaigu. Gure eginkizuna da munduan zear ezagutzera ematea. Zaila egingo zaigun arren, ez etsi; ez pausorik eman atzera! Gizarte lasai oni, legerian erori den erakunde orori, ardura gabe bizi den elizari... aurre egin bear diogu eta ozen eta ausart erran: giza baloreak zaindu, ebanjelioa bizi eta urkoa —etsaia baduzu ere— maitatu.

J.B. ETXARREN.


«Euskararen liburu beltza» ez da nolanahiko liburua. Beltza izanikan ere, alabaina beltzkeriak baititu kondatzen, ongi argitzen gaitu, erakutsiz zenbat oztopo behar ukan dituen gure maintzaira maiteak jasan mendeetan zear. Joan Mari Torrealдай idazle eza-gunak bildu zituen hor, 1998an, artikulu, erabaki eta lege zenbait. Pirinoetako bi aldeetakoak, euskal mintzaira gaitzesten zutenak borizki. Gehienak gazteleraz dira, batzu frantsesez. Denek batean osatzen dute antologia edo flori-legio edo lorategi bat, dena elorritsu. Elorri horiek sustatzen gaituzte euskaraz idaztera, ez baita onartzen ahal ama hizkuntza molde hits hortan izan dadin tratatua.

Ez baitira nafar guzientzat ulert errazak, frantsesezkoak baizik aipa ditzagun oraikoan, bainan lehenik bi hitz erranez. Iraultza garaiko Gregoire apezaz. Konvencionezko lege biltzarreko deputatu zen eta frantsesari gaingainetik eta errotik atxikia, funtsean bere kide guziak bezala.

1793ko uztailan gorako mintzo da bere laguneri, erranez hamabost departamendutan baizik ez dela frantsesa baliatzen. Garai hartan nazione osoan badira 28 miliun biztanle; haien artean beraz 3 miliun frantsesdun! Nola utzi bizirik holako «zuzengabeke-ria»? 1789ko teoria berriek ez dutea nazionearen nagusitasuna zutik ezarri? Eta beraz jendeen artean harreman berri batzuek denek ulert ditzaten Parisen erabakitzaren diren legeak eta Parisek ere konpreni dezan zer nahi duen nazioneak? Gizon frantsesik ez daiteke izan frantses mintzaira menperatu gabe.

Orduan, Gregoire-k zer egiten

Euskara ez da hilen



du? Gerla pizten du etsai andana baten kontra, horiek baitira Frantzian gaindi mintzatzen diren «patois» edo hizkerak. Odolik ez da ixurtzen gerla mota hortan; bakarrik mintzaira «basak» dira uxatu behar, oilategitik azeria bezala.

Torrealдай-en liburutik hartzen dugun 1794ko erabaki batek dio: «Zenbat eta zenbat gastu ez ditugu egin lehenbiziko bi lege-biltzarretan, legeak Frantziako mintzaira guzietara itzultzeko? Guri balitz bezala basa hizkuntza horien bizirik atxikitzea, alta iraultzaren aurka zutitzen direlarik... Herritarren uztea frantsesa jakin gae, hori da, hori, saldukeria nazionearen aurka. Horrela jokatuz, «Argien mende» hunek sortarazi uholdea pozoindaturik dago edo bere bidean trabaturik».

Urrunago: «Hemendik hamar bat egun barne, frantsesadun maisu bat izendatua izanen da

Bretainiako herri bakoitzean, halaber Alsazian, Korsikan... eta Pirineoko mutur hortan. Egutero maisuek frantsesa baizik ez dute baliatuko».

Hastapenean Frantzia 83 departamendutan zatikatzen dute, lehengo probintzi haien orde. Azkarki loturik daude Pariseri, autonomi Herrestorik gabe, funtsean orai bezalatsu. Gregoire-k ateratzen dauku informe pollit bat hizkerak suntsitzeko gisan: «Probintziak ezeztatuak dira Frantzian. Halere hogoitahamar bizkera ditugu oraino, probintzi ohien oroitzapen gisa... Holako hizkera andanarekin, Babeleko dorrearen garaian gaude. Eta, ber denboran, libertateari doakio-nez, nazione guzien aintzin aintzinean!».

Gregoire-k dio aitzina: «Zoin salbagarria frantsesadun maisuen banatzea, bakoitza bere lekuan! Haatik ez daude oraino Leku guziak beterik. Beraz (mintzaira bat baizik ez ukaitekotz) herritarren bihotzeko karra behar beharrezkoa da. Goxoki sinetsarazi diezetela beren entzuleeri zer den frantsesaren baitezpadako garrantzia! Bakoitzak lan hori eginez, lasterrago baizik ez dira desagertuko Erdi Aroko hizkera zakar horiek. Biderik hobere-na, herritarrei frogatzea frantsesaren bidez dela libertatea begiratu. Egiatzko errepublikanoentzat, ongia nun den erakustea aski zaiote: ez dute manu baten beharrik ongi horren egiteko beren inguruan».

Horra zer zion Konvencionezko deputatu batek, duela bi mende. mintzainen kontrako guduka aitzina badoa, etengabe. lehen ezkertiarak, orai eskuindarrak ere... Haatik euskara eta beste mintzaira herrikoia beti hor eta luzazko.

Europa izkuntza txikien alde

LATIEGI'TAR BIXENTE. 945220050.

Poz aundia izen dugu, Europa'n izkuntza txiki bat itzegiten dugunok, Asi-aldeko Jaurilaritza Tukitarrak artu duen erabakia jakite-rakoan. Gaur, Iraillak bere bederatzigarren eguna du. Ba, direla lau egun izen zen erabaki ori Jaurilaritza gogor orrek artua.

Turkia, Asi'n dago, baiña zatitxo bat Europa'n du: oraingo Estambul, antziñako Kostantino-pla dagoen zatia. Orregatik, naiz Turi'ko erria musulmana, atzeratua, eta europarra beñio gei-ago asiarra izen, ango Jaurilaritzak Europa'ko Alkartera sartu nai du. Baiñan, naimen ori lortzeko badu eragozpen aundi bat: Kurdistán'en puskarik aundiena bere mugen barruan duela.

Kurdistán 5 Laterriren artean zatiturik aurkitzen da. Ona, Laterri oiek zein diren: Turki, Armeni, Iran, Irak, eta Siri. Kurdi-tarrek borroka bizian ari izen dire beti beren batasuna ta askatasuna lortzeko. Ta borrokari gogorrena, Turki'n izen dute. Ikaragarri gogorra izen da Turki ere kurditarrekin. Auek, kurdie-raz itzegite bera debekaturik daukate. Ta... orra nola, itxaro ez zuten laguntza iritsi zaien. Ez zuten noski Turkiar-Jaurilariak ere orrelakorik usteko, baña, ¡nor etal, Europa'ren Alkarteko Agintariak! agertu zaizkie Kurdiarren izkuntzaren basbesle zindoak; eta Kurdierarekin eta Turki'n it-

zegiten diren izkuntza tziki guztiekin darabilkiten jardunkera erabat aldatzeko agindu diete, Europa'ra sartu naiez jarraitu nai ba'dute.

Turki'ko Jaurilaritza burua makurtu bearrean aurkitu da. Berala emango duela Kurdiara eta bere mugen barrungo beste izkuntza txikiek bizkortzen as-terko, lege bat. Iraill onen 13'a beñio leenago. Egun ortan bait dire auteskundeak Turki guzian. Begenuen, beraz, Europa'n oraindik ere ele txiki baten bidez mintzatzen geranok poztutzeko arrazoitik naiko. Europa Berria ele txiki oiei tinko laguntzeko gerturik dagoela, oartu bait gara.

Euskara j ez dagoela orren era txarrean? Egon da luzaro, naiz izkeraz bai —1919'an Oñate'ko Eusko-Jakintzen Batzarraren asieran XII Alfontso'k bezala— Euskerari-buruz izkera goxoa erabili... España'ko agintariak eta politikariak gorroto izan bait diote gure izkuntzari. Franko-aurretik eta Franko'z gero. Franko'ren agintaritzakoan, berri, naiz Euskeraren aurka lege bat emana izan ez, egotez galerazita egon zen Euskalerrian Euskeraz itzegitea: soilki etxe barruan eta, kaleetan, lagunarte-an bakarrik itzezin zitekean Euskeraz. Ez, ordea, ikastetxe-tan, izparringietan, irratietan, eta elizetan, (auean, dirua es-katzerakoan dei labor bat egite-

ko izen ezik).

Azken aldera, diktadura zakar arrek indarra galtzen asi zen eran, asi zen Euskara ere, lotsa-turik bezala, elizetara, ta iz-parringietako txoko batzuetara agertzen. Baita irratietara ere. Bañan astean bein. Eta geienaz, ordu bateko beta laburrez. Sortu zen, baitare, Elizaren babes-pean, iskatola bat edo beste.

Gaur bertan ere...! Egia da Legezkoa dela gure Euskara. Eta, Gazteleraren kide. Legez, ordea! Lege utsez! Baña..., izatez? Eus-kera Gaztelerak dituan bentaja guztiak badiuen izkuntza dela esatera ausartzen dena, edo eroa, edo gaiztoa da. Fanatikari arriskutsuz betetako umea. Eus-kalerriaren zatirik aundiena eta euskaldun guztiontzat maiteena den Naparroa'n adibidez jeku-bide berdiñak al dituzte Euske-rak eta Gaztelerak?

Orregatik poztu gaitu Europa gurekin dugula jakiteak. Eliza gurekin genuela, baginakigun, dotriña ederra zabaltu bait zuen Elizak mundu guzira «Pacem in Terris» entziklikaren bidez. Franko'ren denboran izen zen emana entziklika bikaiñ ori. Ori-delata, ez zitzairen atsegiña izen España'ko gotzaiei. Ta Gaur ere, bereiziki erri txiki ta izkuntza txi-kiei-buruzko zatia, atsegiñegia ez zaiela dirudi. Ez bait dute, bei-ñere, aipatu ere egiten.